


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU_n IKERTZAILEAK PRESTATZEKO
KONTRATAZIO DEIALDIA
2017**

ATARIKOA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerkuntza gunerik handiena izaki, eskuordetuta du unibertsitateko pertsonal titulatuak ikerkuntzan prestatzeko eginkizuna eta, hori dela eta, doktorego tesien laborazioa sustatzen du; horrexetarako, pertsonal ikertzaileen prestakuntza helburu duen honako laguntza-deialdi hau argitaratzen du.

Gaur egungo gizartean, doktoreak ezinbestekoak dira ekoizpen sarean eta gizartean. Unibertsitateak doktoreak hezi behar ditu eta ahaleginak egin behar du prestakuntza hori, jakintzan eta berrikuntzan aurrera doan gizarteari egoki dakion, gizartean bertan emakume eta gizonen jakintza, batzuen eta besteen eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasunean txertatuz. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzailetan langile gaituak sartzeko aukera ematen dute.

UPV/EHU sortzen da EAEn sortzen den unibertsitate mailako euskarazko ekoizpen zientifiko gehiena. Euskara bezalako hizkuntza baterako, oraindik ere zeharo estandarizatuta ez dagoelarik, ezinbestekoa da ikertzaileen lan eta ekarpena euskaraz egin eta zabal dezatela. Euskararen arloko Errektoreordetzak arlo hau bultzatu nahi izan du azken urteotan eta, horretarako, laguntzak eman dizkie doktoregai elebidunei doktorego tesiak euskaraz egin ditzaten. Hortaz, UPV/EHUren euskararen II. plan zuzendarian (2013-2017), gobernu kontseiluak 2013ko abenduaren 19an onartuta, era honetako ekimenekin jarraitzeko asmoa berresten da.

Halaber, UPV/EHUk, 2014ko azaroaren 19an oinarritzko hitzarmen bat egin zuen IdEx Bordeaux proiektuan integratutako unibertsitateekin Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa eratzeke, zein bere bikaintasun proiektuen testuinguruan (Euskampus eta IdEx Bordeaux). Euroeskualdeko Campusaren helburua mugaz gaindiko sare bat osatzea da, nazioartean eragina izango duena eta ardatz atlantikoaren erreferentzia bilakatuko dena hala jakintzaren sorrerari nola gaitasun zientifiko eta teknologikoei dagokienez, eta hori jakintzaren balio kate osoan: ideien sorreratik hasi eta ideioek gizartearentzako onura bilakatu arte.

Oinarritzko hitzarmenak xede hauek ditu, besteak beste: sinatzaileen arteko lankidetzak akademikoak, gradu eta masterreko titulazioak eta etengabeko prestakuntzako ikasketak elkarrekin emateko, erakunde bietan aitorpena izango dutenak kredituetan; ikerketa proiektuak egitea lankidetzan; eta doktorego tesiak tutore-kidetzan zuzentzea.

Honako deialdi hau, hortaz, batera aurkezten dute Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE), Euskararen arloko Errektoreordetzak eta IdEx Bordeaux proiektuan integratutako unibertsitateek, hiru modalitatetan egituratuta, deialdiaren 2. oinarrian adierazi bezala.

I. eta III. modalitateetarako finantzaketa IAEk jarriko du: guztira, 4.400.000€ bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren barruan esleitutako finantzaketarako ezarritako aurrekontu kredituari dagozkionak, "Banakako gaitasun zientifiko, teknologiko, sozial eta gestiorakoak garatzea" deritzon helburua lortzeko "Doktorego aurreko laguntzak indartzea (ohikoa eta COFUND) eta doktoreak ingurune sozioekonomikoan txerta daitezen sustatzea" 3.1. ekintzari eskainita.

II. modalitateetarako finantzaketa Euskararen arloko Errektoreordetzak ematen du, 566.000 eurotako zenbatekoaz, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren barruan esleitutako finantzaketarako ezarritako aurrekontu kredituari dagozkionak, "Euskal hizkuntza eta kulturari loturiko irakats eskaintza laguntzeko ekintzak" deritzon helburua lortzeko "Euskarazko doktorego tesiak sustatzea" 4.2. ekintzari eskainita.

Errektoreordetza biok konprometitutako finantzaketaz ordainduko dira errektoreordetza bi horiek lehenago burututako deialdien bidez emandako laguntzei legezkiekeen urteko ordainketak eta doktorego osteko kontratu berrien lehenengo urteko ordainketak.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta gobernu kontseiluak onetsi ondoren, IAEk eta Euskararen arloko errektoreordetzak erabaki dute subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren xedea da unibertsitateko tituludunak UPV/EHUn doktorego programetan prestatzea, bai eta jakintza zientifikoaren edozein arlotako doktorego tesiak egitea ere, doktorego aurreko kontratuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera (aurrerantzean ZTBL).

2. oinarria. DEIALDIAREN MODALITATEAK

2.1 Deialdiak hiru modalitate ditu:

- **I. modalitatea:** doktorego aurreko prestakuntza orokorrean ari diren ikertzaileen kontratazioa.
- **II. modalitatea:** doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileen kontratazioa, doktorego tesia euskaraz egin dezaten.
- **III. modalitatea:** Ikertzaileak UPV/EHUn eta IDEX Bordeaux osatzen duten unibertsitateetan tutore-kidetzan prestatzeko kontratazioa.

2.2 I. eta II. modalitatean irekita daude jakintza zientifikoaren arlo guztietara.

2.3 III. modalitaterako eskariak bat beharko dute etorri unibertsitateen artean adostutako "Topics and ongoing collaborations" horietakoren batekin, oinarri hauen I. eranskinean deskribatuta daudenak. Baldintza hau betetzen ez duten eskariak kanpoan geratuko dira eta ezin izango dira birformulatu errakuntzak zuzentzeko epean.

2.4 Hautagai bakoitzak eskari bakar bat egin ahal izango du, I eta II. modalitateak hautatuz eta nork bere interesaren arabera lehenetsiz, edo III. modalitatea. III. modalitatea bateraezina da I eta II. modalitateekin. Modalitate bateraezinak hautatuz gero, ulertuko da eskaria III. modalitatera aurkeztuko dela.

2.5 Modalitateen hautaketa eta lehenespena ezin izango da aldatu, eskaria aurkeztu ondoren.

3. oinarria. ESKATZAILEEN BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkezten duteneko unean:**

3.1 Honako baldintza hauetakoren bat bete:

- a. **Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina lortuta.** Salbuespenez, titulazioa lehenagoko data batean lortu izana izan ahalko da, proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen bada edo hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izana agertzen bada. IGBBk balioetsiko ditu baldintzok baldintza hau bete den edo ez ebazteko.
- b. **Doktoregora bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, berori 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera lortua izanik eta egiaztatu 2011ko urtarrilaren 1aren eta 2014ko urtarrilaren 1aren artean hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izana.**
- c. Unibertsitate tituludunen kasuan, osasun prestakuntza espezializaturako plazak lortzera bideratutako prestakuntza plaza lortua badute, osasun zientzien espezialitateetako titulu ofiziala lortzera bideratutako prestakuntza programa batean, gutxien dela, bi urte balorazio positiboaz gainditu badute eta bi prestakuntza urte horien amaiera 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina bada.
- d. **Doktoregora sarbide zuzena ematen duen titulu baten azken ikastaroan aritzea.** Pertsona hauek epe gehigarri bat izango dute 2017ko urriaren 31ra arte, espediente akademiko osoa aurkeztuko badute. Espediente deialdi honen 7. oinarrian deskribatutako edozein bitarteko erabilita aurkeztuko ahal da. Aurkeztu ezean, hautagaiok hautaketa prozesutik at geratuko dira.

3.2 Batez besteko nota ondoko hauek edo hobeak izan:

- i. 6,5 puntu, zientzia, ingeniarietza eta arkitekturaren arloan lehiatzeko.

- ii. 7 puntu, osasun zientzien, gizarte eta lege zientzien eta arte eta giza zientzien arloen lehiatzeko.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatu egingo da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz. Plan ez berrituen kasuan, batez besteko nota kalkulatzeko lortutako kalifikazioen batura zatituko da gainditutako irakasgaien kopuru osoarengatik.

Espedientearen batez bestekoa kalkulatzeko, balioetsi edo egokitu ez dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliokidetu edo egokitutako irakasgaien kasuan, jatorrizko ikasketetan edo ikastegian lortutako kalifikazioak konputatuko dira, baldin eta dokumentalki egiaztatu ahal bada. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, nahiko kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

Era berean, espedientearen batez besteko kalkuluari dagokionean, ez dira aintzat hartuko beste espezialitateetako irakasgaietan lortutako notak, ez eta masterreko ikasketetan ere.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, ANECAren ziurtagiri ofizialean agertzen den espediente akademikoaren batez bestekoa hartuko zaie aintzat.

3.3 Doktore tituluaren jabe ez izatea.

3.4 Ikertzaile ez doktoreak kontratatze beka edo laguntzarik ez lehen ez orain ez izatea, prestakuntza jaso eta doktorego tesia egiteko helburuz.

3.5 Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek **Espanian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena** aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzeritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.

3.6 II. modalitatearen kasuan, eskatzaileek egiaztatu beharko dute euskararen C1 ziurtagiria dutela.

3.7 **Eskarian adierazitako UPV/EHUren doktorego programan matrikulatuta eta eskarian adierazitako tesi zuzendari-kideekin egotea, laguntza emateko erabaki behin betikoa argitaratzerakoan** eta honela ez egiaztatzea laguntza ukatzeko zio izango da. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, horretarako epean eta forman.

Aurreko **baldintza guztiak** betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituztenak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

4. oinarria. TESI ZUZENDARIKIDEEN BALDINTZAK

4.1 Eskari bakoitzak tesi zuzendari-kide bat edo biren bermea izan beharko du, zer modalitate hautatzen den:

- I eta II. modalitateak:** Gehien dela, tesi zuzendari-kide bi izan ahal dituzte, 4.2 oinarriko baldintzak bete behar dituztenak.
- III. modalitatea: Nahitaez** izango dute UPV/EHUko zuzendari-kide bat eta beste zuzendari-kideak IDEX Bordeaux osatzen duten unibertsitateetako batekoa beharko du izan UPV/EHUko tesi zuzendari-kideak 4.2 oinarriko baldintzak bete beharko ditu. IDEX Bordeaux ekimeneko tesi zuzendari-kidea onartuko beharko du UPV/EHUren barruan legokiokeen batzordeak.

4.2 Tesi zuzendari-kideek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte **eskaria egiten denean**. Eskatutako baldintza guztiak betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituztenak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

- Zuzendari-kideetako batek bederen UPV/EHUren doktorego programan egon beharra du, eskarian adierazitako urtarrilaren 28ko 99/2011 errege dekretuak araututa. Tramiteak graduondoko batzordeak egina beharko du izan eskaria aurkezterakoan.** Eskatzaileek egiaztatu ahal izango dute proposatutako zuzendari-kideak beraiek hautatutako doktorego programan ari diren honako esteka honetan:

<http://www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikasle-berriak>

- b. Eskaria egiterakoan programako irakasle ez den zuzendari kideak ere, bere aldetik, legokiokeen batzordeak onartua beharko du izan. IAEk ofizioaz gainbegiratuko du baldintza honen betetzen den eta, ezezkoan, eskaria bertan behera utzi ahal izango da.
- c. **Tesi zuzendariak ezin emango dio abala eman deialdi honetan eskari bati baino gehiagori.** Baldintza hau antzemanik, eskatzaileari, alegazioak emateko epearen barruan, 10 egunen epea emango zaio tesi zuzendari berri bat proposa dezan, deialdian eskaturiko baldintza guztiak eskaria egiterakoan beteko dituen zuzendaria. Eskatzaileak lehengo tesi zuzendari-kidea agertuko luketen dokumentu guztiak eguneratu eta aurkeztu beharko ditu, behin betiko zuzendari-kidearen datuak jasota. Baldintzak betetzen ez dituen tesi zuzendari-kidea proposatuz gero, ezin izango da zuzendu, eskaria baztertzeko zioa izanik.
- d. Tesi zuzendarietako batek gutxienez izan beharko du UPV/EHUrekiko lotura funtzionarial zein estatutu edo kontratu bidezko lotura, eskaria agertzeko unetik eta laguntza gauzatzeko tarte edo epe osoan zehar.

5. oinarria. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

5.1 Honako laguntza hauek sartzen dira deialdi honetan:

- a. **I. modalitatea:** gehienez, 50 laguntza emango dira.
- b. **II. modalitatea:** 7 laguntza emango dira.
- c. **III. modalitatea:** gehienez, 5 laguntza emango dira.

Aurreikusi diren laguntzen kopurua aldatu ahal izango da emateko erabakian, aurrekontu baliabideen arabera eta laguntzen iraunaldi aldakorraren arabera. Plazak guztira zenbat diren ere, gutxien dela, 4 plaza gordeko dira %33ko ezgaitasuna edo handiagoa luketen pertsonentzat, aurreko oinarrian ezarritako lana garatu ahal izateko gaitasuna egiaztatzen badute.

5.2 Eskainiko den lan-kontratua ZTBLren 21. artikulua arautuko du. Kontratutako langileak prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzailetzat hartzen dira.

5.3 Kontratutakoa, beraz, UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik.

5.4 Kontratuaren iraupena, arduraldi osoan, ez da izango urtebetetik beherakoa edo lau urtetatik gorakoa. Luzapena urtero egingo da, kontratuak programan dirauen bitartean.

Kontratua % 33ren minusbalioetasuna edo goragoko pertsona batekin sinatu bada, balioetsiko da kontratua gehiago luzatzeko aukera, kontratatutako pertsona doktoregoko prestakuntzarako eperik luzeena arduraldi osoan agortu arte.

Kasu guztietan oro, kontratuaren aurrerantzeko luzapenak aurrekontu erabilgarria edukitzearen menpe egongo dira.

Nolanahi ere, kontratua luzatuko bada, ezinbesteko baldintza izango da eskarian adierazitako doktorego programan matrikula egitea. Ez da programa aldaketarik onartuko luzapena egiteko.

5.5 UPV/EHUk ezin izango du inor kontratatu mota honetako kontratuen bidez lau urtetatik gora, beti ere zenbatuta beste erakunderen batean kontratu modalitate honen bidez izandako aldia.

5.6 Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

5.7 Ikerketaren arloko errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza erabakian ezarritako epean amaituko da. Laguntzaren etenaldian zehar baja emango da gizarte segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

5.8 Formalizatutako kontratuetak ordainsari gordina 14.545 euroakoa izango da lehenengo urtean, 14.545 euroakoa bigarrenean, 18.182 euroakoa hirugarrenean eta 18.182 euroakoa laugarrenean, hamalau ordainketatan banatuta.

6. oinarria. ESKARIEN EDUKIA

6.1 Eskariak IA Eren webgunean eskura daitezkeen eredu arautuetan bete behar dira:

<http://www.ikerkuntza.ehu.eus>

Eskaria egiteko inprimakia **paperezko euskarrian** eta PDF gisa aurkeztu beharko da, eskuz idatzitako jatorrizko sinadurekin edo ziurtagiri elektronikoaren bidez sinadura digitalekin. Eskaria egiteko formularioa eskariaren **zati eta ataltzat hartuko da, eskariaren gutxieneko edukia izanik**. Epearen barruan eta formaz aurkeztu ezean, bazterrean utzi ahal izango da eskaria, zuzentzeko epean gehitu edo aldatu ahal izateko aukerarik gabe.

6.2 Era berean, honako dokumentu hauek ere gehitu beharko dira aplikazioaren bidez **PDF formatuan**:

- a. ***Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako akademi ziurtagiri pertsonala, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren.*** Ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kreditu guztiak osatzen dutela titulazio osoa. **Kasuan kasuko ikasketak UPV/EHU n egin dituzten hautagaiek ez dute dokumentu hau agertu beharrik.**
- b. 3.1.b) edo c) oinarrietako adierazitako salbuespenetako bat alegatuko luketen eskatzaileek, aurrekoaz gain eta norberaren kasua zein den, **espezialitateko tituluaren kopia edo beronen ziurtagiri ofiziala** agertu beharko dute edo hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izanarena (**familia liburuaren fotokopia**).
- c. Ezgaitasunik duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartuko diren pertsonak **ziurtagiria** aurkeztu beharko dute **% 33ko ezgaitasuna edo handiagoa egiaztatzeko**.
- d. Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera **atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria** aurkeztu beharko da, **Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) emana**. Dokumentu hau ANECAren webgunearen bidez lortu ahal da:
<http://www.mecd.gob.es/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha.html>
- e. **Eskatzaileen Curriculum Vitae**. Dokumentu hau ingelesez aurkeztu ahal izango da Ekonomia, Industria eta Lehiakortasunaren ministerioaren ohiko formatuan. Txantiloia IAE-ren webgunetik jaitsi ahal da.
- f. **NAN, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia**.
- g. **Europar Batasuneko hiritarrik ez diren eskatzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena** aurkeztu beharko dute **deialdiaren ebazpenetik hiru hilabeteko epean gehienez**, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.
- h. **Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria (B2 edo C1 mailak besterik ez)**. **Eskariak aurkezteko azken egunera arte lortutako ziurtagiriak besterik ez da onartuko**. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzei salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak eragindako baliokidetzen kasuan, eskatzaileak dagokion ziurtagiria ere aurkeztu beharko du. Eskaria egiterakoan titulazioa euskaraz amaitzen ari bada, epe gehigarria egongo da **2017ko urriaren 31ra arte** ikasketen ziurtagiria aurkeztu ahal izateko.
- i. **II. modalitatearen kasuan, zuzendari-kideek euskararekiko alegatutako merezimenduak** (C1 edo C2, tesiak euskaraz zuzentzea, euskarazko ekoizpen zientifikoa).
- j. **Hala legokiokenean, tesi zuzendariaren doktore tituluaren kopia, bere doktorego tesia 2000 eta 2012 urtean artean defendatu duela egiaztatuz**.

Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da ebaluatuko. Hortaz, ez da eskatutakoaz besteko dokumentazioa aurkeztuko, ez baita inola ere aintzat hartuko.

6.3 Eskatzaileek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal dute eskaria, CV izan ezik, berorrek ingelesez egon beharko baitu ezinbestean.

Eskariak kanpoko prozesu baten bidez balioetsiko da Ikerkuntzarako Estatu Agentzia, Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatala (lehengo ANEP) baliatuz, euskaraz ez dakien pertsonalak egina. IAE-k UPV/EHUREn Euskara Zerbitzuari aginduko dio euskaraz aurkeztutako eskariak gaztelaniara edo ingelesera itzultzea. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoaz helaraziko zaio eskatzaileari, eskariak adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

Bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da eskatzailea ados dagoela itzulpenarekin.

7. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

7.1 Paperezko euskarrian egindako eskaria formalki erregistratuko da baldin eta UPV/EHuko Ikerkuntzarako errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUREn 2012ko maiatzaren 16ko erabakian (EHAA, 2012ko ekainaren 18koa) aipatzen diren bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikulua araberak ere aurkez daitezke.

Eskarrik edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria zigilatuko badu. Ondoren, posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Ikerketako Deialdien Atala
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

Fase honetan, **inprimakia osorik beteta ez aurkeztea arrazoia izango da hautaketa prozesutik at uzteko.**

8. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2017ko ekainaren 16ra artekoa izango da.

9. oinarria. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

9.1 Deialdiaren I. modalitateari dagokin esleipenerako, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1 Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	50 puntu
2 Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, <u>horren finantzaketa egokia barne</u>	30 puntu
3 Eskatzailearen esperientzia eta curriculum	10 puntu
4 Euskara maila (c)	5 puntu
5 Doktorego tesiaren zuzendari-kideetako batek doktore titulua 2000 eta 2012 urteen artean, biak barne (pertsona bakarrarena hartuko da kontuan).	5 puntu
GUZTIRA	100

9.2 Deialdiaren II. modalitatea ebazteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1 Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	50 puntu
2 Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa egokia barne	30 puntu
3 Eskatzailearen esperientzia eta curriculum.	10 puntu
4 Euskararen arloan egindako ekarpenak (d).	5 puntu
5 Doktorego tesiaren zuzendari-kideetako batek doktore titulua 2000 eta 2012 urteen artean, biak barne (pertsona bakarrarena hartuko da kontuan).	5 puntu
GUZTIRA	100

9.3 Deialdiaren III. modalitateari dagokin esleipenerako, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1 Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	50 puntu
2 Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa egokia barne	30 puntu
3 Eskatzailearen esperientzia eta curriculum.	10 puntu
4 Frantses maila nazionalitate espainiarra duten eskatzaileei edo euskara edo gaztelaniaren maila nazionalitate frantsesa duten eskatzaileei (e)	5 puntu
5 Doktorego tesiaren zuzendari-kideetako batek doktore titulua 2000 eta 2012 urteen artean, biak barne (pertsona bakarrarena hartuko da kontuan).	5 puntu
GUZTIRA	100

(a) oharra: Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHUn titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.

Eskaerako titulazioa ez badago UPV/EHUn, edo titulazio horri dagozkion batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, aurreko ikasturteetan UPV/EHuko titulazioetan lortu diren batez besteko notak erabiliko dira normalizaziorako.

NORMALIZAZIORAKO ERABILITAKO FORMULAK:

Eskatzailearen_NK: eskatzailearen espediente akademikoaren normalizazio koefizientea.

Eskatzailearen_BatezBestekoa: Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

Titulazioaren_BatezBestekoa: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batez bestekoa.

Gutx_NK: Titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

Geh_NK: Titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

Titulazioko_DesbEstand: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako noten desbideratze estandarra.

Eskatzailearen_NotaNormalizatua: 9.1 eta 9.2 oinarrietan ezarri diren gainerako irizpideetan jasotako puntuazioei gehitutako normalizazioaren ondoriozko emaitza, puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua).

NK_eskatzalea =

$$\frac{(\text{Eskatzailearen_BatezBestekoa} \times 10) - (\text{Titulazioaren_BatezBestekoa} \times 10)}{\text{Titulazioko_DesbEstand}}$$

Eskatzailearen_NotaNormalizatua =

$$\frac{(\text{Geh_NK}) - (\text{Eskatzailearen_NK})}{\text{Geh_P} \times \frac{(\text{Gutx_NK}) - (\text{Geh_NK})}{\text{Geh_P}}}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko normalizatutako puntuazio guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Titulazio bat baino gehiago egin badituzte, 3.1.a oinarrian ezarritako denbora baldintza betetzen duena edo proposatzen den ikerketa proiektuaren gaiarekin erlaziorik estuena duena erabiliko da normalizaziorako.

(b) Oharra: Espainiako unibertsitate sistematik at lortutako espedienteen kasuan, aipatutako 1. irizpidean Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetza hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.

ANECAn igorritako egiaztagiria deialdiaren 6. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera erantsi beharko da.

Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleituko dira

(c) Oharra: Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

(d) oharra: Irizpide honen ebaluazioa euskara batzordeak egingo du, honako baremo hauek aplikatuta:

- Eskatzailearen merezimenduak: C2, MAL eta/edo GRAL euskaraz, ekarpen zientifikoa euskaraz.
- Doktorego tesiaren zuzendari-kideen merezimenduak: C1 edo C2, euskarazko tesien zuzendaritza, euskarazko ekoizpen zientifikoa.
- Euskarazko ikerketa proiektuaren hizkuntza kalitatea

(e) oharra: Adierazitako puntuazioa lortzeko, legokiokeen maila egiaztatuz aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

10. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda:

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestio Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak. Azterketa hau amaitu eta gero, IAE-k bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskarien zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak. Tramite hau egiteko, hilabetearen epea izango du, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero kontatzen hasita.

Okerren zuzenketa:

Eskariak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen erroreak edukiko balitu, IAE-k eskatuko dio eskatzaileari hamar egunen epean osatu eta zuzen dezan.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskariak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAE-k eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerrak zuzendu beharko dira 7. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita.

Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda:

Agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak. Behin betiko zerrenda hamar lanegunen epean argitaratuko da okertzeko epea amaitu eta gero kontatzen hasita.

Ebaluazio fasea

Bederatzigarren oinarrian deskribatu diren ebaluazio irizpideen balioespena Ikerkuntzarako Estatu Agentzia (lehengo ANEP), Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatalaren bidez egingo da. Tramite hau bi hilabetetan luzatuko da. ANEPek egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. espediente akademikoaren batez besteko nota haztaturik altuena lukeen eskaria lehenetsiko da (1. irizpidea).
- b. I. modalitatearen kasuan, lehenetsiko da modalitate honetan arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren %a eskariko, arlo bakoitzean).
- c. II. eta III. modalitateetako eskarien kasuan, lehenetsiko da 4. irizpidean puntuaziorik onena lortutako eskaria.
- d. Lehenetsi egingo da 2. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.

Behin-behineko ebazpena

IGBB-k behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAE-ren webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegazio espresik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Behin betiko erabakia:

Epea hau iraganik, IAE-k aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBB-ri, bertan azter daitezten eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazio onartu zein ezesteko behin betiko erabakia IAE-ren webgunean argitaratuko da. **Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak:**

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarritz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legea).

2- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

11. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

11.1 Kontratuak formalizatu baino lehen, kontratazioen esleipendunek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin-behineko ebazpenean adieraziko da.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAE-n:

- a. Lan bizitzaren ziurtagiria.
- b. Eskarera adierazitako doktorego programan matrikulatu izanaren ordainagiria.
- c. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari-kideak eta saileko/institutuko zuzendari-kideak ontzat emana.
- d. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- e. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- f. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria.
- g. Pertsona minusbaliatuen kasuan, jarduerarako minusbaliotasunen maila egiaztatzeko ziurtagiria eskatuko da, ehunekotan emana, minusbaliotasuna aintzatetsi, aitortu eta sailkatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 errege dekretuaren arabera.
- h. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

11.2 Aurreko atalean adierazitako baldintzak bete eta hurrengo hilabetean formalizatuko dira kontratuak eta kontratatutako langileak dagokien unibertsitate sail, institutu edo gunetan lanean hasiko dira.

Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzek ekitaldira edo sail, institutu edo ikergunean lanean hasiko, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

11.3 Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerkuntzarako errektoreordeak baimena eman dezake hasteko eguna gehienez sei hilabetez atzeratzeko. Atzeratzeko eskaria 11.1 oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztuko da.

11.4 Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

11.5 Kontratua sinatu eta sei hilabetetara, Ikerkuntza gestiorako zuzendaritzak (IGZ) ofizioz egiaztatuko du onuraduna eskarian adierazitako doktorego programan matrikulatuta dagoela, bai eta tesiaren zuzendari-kideak azkenik bertan adierazitakoa direla ere. IAE-k ofizioz eta 6 hileroko maiztasunaz baldintza hau betetzen duen ikuskatuko du, kontratuak dirauen bitartean. Bi betebeharrak hauetako bat bete ezean, kontratua atzera botatzeko arrazoitzat hartuko da.

12. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

12.1 Eskubidea dute txertatzen direneko sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketa programak egiteko.

12.2 9.8. Kontratututakoek unibertsitateko zerbitzu orokorrak eta beroriek hartuko dituen ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabili ahal izango dituzte. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

12.3 Kontratututakoak **zeregin osagarriak egin ahal izango ditu** proposatutako ikerketa jarduerarekin erlazionatutako **irakaskuntza lanetan** (gehienez 60 ordu urtean), dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko arautegiari lotuta, irakasgai ardurarik izan edo ikasleen ebaluazio edo probarik egin ezin dutelarik.

13. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

13.1 Eskarian adierazitako doktorego programan matrikula urtero formalizatuko dute UPV/EHUren graduondoko batzordeak ezarritako epeen barruan.

13.2 Zeinek bere lana adskribatutako sailean, institutuan edo gunean egitea.

13.3 Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZ-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

13.4 Honako deialdi honen aipamena egin beharko dute, kontratuak dirauen bitartean egingo liratekeen ikerketa jardueretatik ondorioztatutako liratekeen argitalpen eta bestelako emaitzetan.

13.5 Organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrol-jardueretara makurtzea, jarduera horietarako eska dezaketen edozein informazio emanez.

13.6 UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, prestakuntzan ari den pertsonalak egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitopenenari betiere eutsiz.

13.7 Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

13.8 Doktoregoa lortuko dute legezkiekeen doktorego arautegietan aurreikusitako epeen barruan.

14. oinarria. TESI ZUZENDARI-KIDEEN BETEBEHARRAK

14.1 Tesi zuzendari-kideen betebeharrak izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesia zuzendari-kide gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

14.2 IAE-ri jakinaraziko diote deialdi honen bidez kontratatu den pertsonalak doktore gradua lortu duela.

14.3 Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IAE-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

15. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

15.1 Deialdi honen bidez aukeratutakoek ez dute UPV/EHUrekin lan kontratu harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan amaituko da.

15.2 Deialdi honen kargura finantzatutako kontratuak ez dira bateragarriak kontratatutako ikertzaileek eduki ditzaketan lan kontratuekin, edo soldata izaera duen edozein diru kopuru jasotzearekin, 5. oinarrian ezarritako arduraldi osoko erregimenaren ondorioz.1.

16. oinarria. KONTRATUAREN UKOAK, BAJAK ETA AMAIERA

Tesi zuzendari-kideak deialdi honen bidez kontratatutako pertsonalak egin litzakeen uko, baja eta gainerako gorabeheren berri eman beharko dio UPV/EHUren IAeri, gertatu eta hiru egunetara, kasuan kasu justifikatzeko beharko litzatekeen agiriekin batera.

Kontratatutako ikertzaileak ukoa, baja edo gorabehera jakinarazi beharko dio Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari.

17. oinarria. JARRAIPENA

17.1 Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak laguntzaren baliatzeko beharko liratekeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, IAek edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

17.2 Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetean aurkeztuko zaizkio IAeri.

17.3 Kontratu amaitu eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, kontratuaren indarraldian zer jardura egin diren ezagutarazteko.

18. oinarria. KONTRATUEN ETETEA

Lan kontratu ondorengo arrazoietakoa batengatik etengo da:

- a. Kontratuak berak uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskarian adierazitako doktorego programan matrikulaturiko pertsonaren izaera galtzea.
- d. Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskarian adierazitakoez besteko tesi zuzendariarekin aritzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren baimenik gabe.
- e. Tesi zuzendari-kideek eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendari-kideek eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- f. Laguntza ezeztatzea, eginbeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza ematerakoan aintzat hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- g. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- h. Laguntzarako aurrekontu-krediturik ez dagoelako.
- i. Doktore titulua eskuratzea. Doktore titulua lortzeak laguntzaren helburua baliogabetzea eragingo du eta, ondorioz, laguntza eskubideak bertan behera amaitzea. Honelakoetan, laguntzaren amaieraren ondorio administratibo eta ekonomikoak doktorego tesiaren defentsa egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunean hasiko dira.

19. oinarria. JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK

19.1 Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Deklarazioa, 2004).

- Indarreko arauak bete behar dira: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 EDa, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Datu Pertsonalei buruzko 15/199 Lege; eta UPV/EHUKO arautegia, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 2008koa.
- IIET/GIEB-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena lortu, alde zuzenetatik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUKO ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).

19.2 Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenetatik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUKO ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru aldundien abeltzaintza saila).

19.3 Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuzentasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 664/1997 ED; agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 665/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenetatik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUKO ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).

19.4 Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrio zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioetatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan behar da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde zuzenetatik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

19.5 Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean

deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikularekin bat etorruta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2017ko maiatzaren 11n

José Luis Martín González jauna
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación

I. ERANSKINA**(III. modalitatean ez beste inon aplikatzeko)**

Doktorego tesietako ikerketa proiektuek landu behar dituzten ikerkuntza arloak (Topics and ongoing collaborations)::

Advanced manufacturing and Materials
Ageing and frailty
Archaeology
Arts
Biological ecosystems
Biomedicine
Computing, modelling and simulation
Education
Food and nutrition
Marine energies
Neurosciences
Photonics and translational imaging
Social innovation
Theoretical chemistry and physics at the quantum scale

Eskarietan ANEPeko ebaluazio arloa zehaztu beharko da, doktorego tesietako ikerketa proiektuek landu behar dituzten ikerkuntza arloari dagokionean.

AGR	Nekazaritzaren arloa (AGR)
BFS	Oinarrizko eta sistemen biologiaren arloa (BFS)
BMED	Biomedikuntzaren arloa (BMED)
BVAE	Landareen eta Animalien Biologia eta Ekologiaren arloa (BVAE)
CS	Gizarte Zientzien arloa (CS)
CT	Lurraren Zientzien arloa (CT)
EDUC	Hezkuntza Zientzien arloa (EDUC)
FI	Fisika eta Espazioaren Zientzien arloa (FI)
HA	Historia eta Artearen arloa (HA)
IEL	Ingeniaritza Elektrikoa, Elektronikoa eta Automatikaren arloa (IEL)
INF	Konputazio Zientziak eta Teknologia Informatikoaren arloa (INF)
MCLI	Medikuntza Klinikoa eta Epidemiologiaren arloa (MCLI)
MTM	Matematikaren arloa (MTM).
TM	Materialen Zientzia eta Teknologiaren arloa (TM)